

ERANSKINA

EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

LEHENENGO PROBA:

ESPEZIALITATEKO BERARIAZKO EZAGUTZEN PROBA

Hizkuntza gaitasuna irakasle-lanean funtsezko gaitasuna da. Berariaz baloratuko da. Lehen proba honetan, hizkuntza gaitasunaren balorazioa idazmenean zentratuko da. Horrela, hizkuntzaren (euskara, gaztelania, ingelesa, dagokiona) erabilera ortografiko eta diskurtsiboa egiaztatuko da, ondoko irizpideetan oinarrituz:

- Ortografia akatsak: -0'5 puntu, akats ortografiko bakoitzeko (hitz bera behin bakarrik hartuko da kontuan). Esaterako: *eder eder, *mendiz-mendi...

Hiztegi batean agertzen dena hartu beharko litzateke erreferentetzat, probak garatzen diren hizkuntzei dagokienez.

http://www.rae.es/sites/default/files/Principales_novedades_de_la_Ortografia_de_la_lengua_espanola.pdf

<http://www.rae.es/rae.html>

<https://www.euskaltzaindia.eus/es/>

- Tildeen erabilpen desegokia: -0'5 puntu gutxiago gaizki azentuatuta dagoen hitz bakoitzeko (hitz bera behin bakarrik hartuko da kontuan). Adi egon "RAE"-k honen inguruan argitaratutako azken eguneratzeekin.
- Gramatika-erabilpen desegokia: -0,5 puntu bakoitzeko.



LEHENENGO PROBA: A ZATIA
IZAERA PRAKTIKOKO PROBA

PRESTAKUNTZA ZIENTIFIKOA. Adierazleak:	KALIFIKAZIOA
Planteamenduaren justifikazio edo oinarri teoriko eta arauemailea erakutsi ditu	3 PUNTU
Kasu praktikoen garapenean ezagutza maila egokia erakutsi du.	
Hizkuntza tekniko, zehatz eta egokia erabili du.	
ESPEZIALITATEKO TREBETASUN TEKNIKOAK MENDERATZEA. Adierazleak	KALIFIKAZIOA
Kasu praktikoen, eta hauen atalen, ebazpena egokia, antolatua eta eraginkorra da.	7 PUNTU
Beharrezkoak eta egokiak diren teknika eta estrategiak aplikatu ditu.	
Kasu praktikoen ebazpenean metodologia aktiboetan oinarritu da eta interesa sorrarazten duen metodoa aplikatu du.	
Ikasleen aniztasunaren trataerantz bideraturiko estrategia eta neurriak hartu ditu.	
Hezkuntza prozesua baloratzeko ebaluazio irizpideak, prozedurak eta tresnak aplikatu eta erabili ditu.	
Kasu praktikokoak ikastetxe bateko errealitatean txertatzeko gaitasuna erakutsi du: erakunde-dokumentuak, gobernu organoak, irakasleen parte-hartzea eta koordinazioa, plan eta programekiko lotura.	

LEHENENGO PROBA: B ZATIA
GAI BAT GARATZEA (Hirutik bat aukeratzea)

GAIAREN GAINEKO EZAGUTZA ZIENTIFIKOA. Adierazleak:	KALIFIKAZIOA
Gaiaren gaineko ezagutza sakon eta zorrotza erakutsi du.	7 PUNTU
Kontzeptuak zehaztasunez erabili ditu eta ez da akats kontzeptualik ikusi.	
Erreferentzia bibliografiko esanguratsu eta eguneratuak erabili ditu.	
Garaturiko gaiari aplika dakioken araudia ezagutu eta erlazionatu du.	
Gai teorikoa irakaslanarekin erlazionatu du.	
GAIAREN EGITURA. Adierazleak:	KALIFIKAZIOA
Gaitegian azaltzen den gaiaren atal guztiak garatu ditu.	3 PUNTU
Gaiaren atal guztiei tratamendu orekatua eman die.	
Erabilitako egiturak gaiaren ulermena erraztu du.	

BIGAREN PROBA:
PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA eta UNITATE DIDAKTIKOA

A) PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA AURKEZTU ETA DEFENDATZEA	
PROGRAMAZIOAREN AURKEZPEN IDATZIA. Adierazleak:	KALIFIKAZIOA
Luzerari eta aurkezpenari dagokienez, deialdiaren IV. eranskinean aipaturiko baldintza formalak errespetatu ditu.	2 PUNTU
Espezialitate bakoitzerako egin diren zehaztasunak errespetatu ditu.	
Deialdian aipaturiko atal guztiak ditu: helburuak, gaitasunak (araudiaren arabera), edukiak, ebaluazio irizpideak, metodologia eta berariazko hezkuntza premiak dituzten ikasleei eman beharreko erantzuna.	
Deialdian ezarritako unitate didaktikoen gutxieneko kopurua du.	
Aipamena egin dio indarrean den curriculumari eta Nafarroako Foru Komunitateko araudiari.	
PROGRAMAZIOAREN AZALPENA ETA DEFENTSA. Adierazleak:	KALIFIKAZIOA
Testuinguruan behar bezala jarria dago aurkezturiko programazioa.	2 PUNTU
Programazioan planteaturiko helburuak dagozkien mailari eta ikasleen ezaugarriei egokitu zaizkie eta gaitasunak eskuratzeko lagungarri dira. Helburuak ongi formulatuak daude eta koherenteak dira programazioko eta curriculum ofizialeko gainerako elementuekin.	
Edukiak helburuekin loturik eta haien arabera planteaturik daude eta sekuentziazioa eta denboralizazioa egokiak dira.	
Metodologia koherentea da eta programaturiko helburu eta edukiekin bat dator. Programazioan elementu didaktiko berritzaileak eta metodologia aktiboak sartu ditu.	
Ikasleen ikaskuntza ahalbidetzen duten estrategiak, prozedurak edota ekintzak erabili ditu. Hainbat baliabide didaktiko, curriculumeko material eta IKT erabili ditu.	
Ebaluazioa koherentea da programazioko gainerako elementuekin. Araudiaren araberako ebaluazio irizpideak eta ikaskuntzako estandarrak kontuan izan ditu, dagokion kasuan. Irakaslan eta ikasleen ikasteko prozesua ebaluatzeko prozedura eta tresna egokiak ezarri ditu. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua ebaluatzeko hainbat une ezarri ditu. Ikasleari eta familiei informazio jarraitua emateko mekanismoak aurreikusi ditu.	
Programazioak berariazko hezkuntza premiak dituzten ikasleei erantzuten die.	
Argitasuna eta jarioa aurkezpenean. Ahoskera, intonazioa eta abiadura egokia. Erraztasunez hitz egiten du. Hiztegi zabala eta teknikoa darabil.	
PROGRAMAZIO DIDAKTIKOARI BURUZKO EZTABAIDA. Adierazlea:	
Galderei ongi erantzun die.	PUNTU 1

B) UNITATE DIDAKTIKO BAT PRESTATZEA, AZALTZEA ETA DEFENDATZEA	
UNITATE DIDAKTIKO BAT PRESTATZEA, AZALTZEA ETA DEFENDATZEA. Adierazleak:	KALIFIKAZIOA
Unitate didaktikoa ikasleen errealitatearen eta ezaugarrien testuinguruan kokatu du.	4 PUNTU
Helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta ikaskuntza estandarrak, hala dagokionean, araudiak eta curriculum ofizialak diotenarekin bat datoz eta ongi planteatuta daude.	
Edukiak curriculum ofizialaren esparruan daude eta proposaturiko helburuekin bat datoz.	
Unitate didaktikoak gaitasunen garapen maila nabarmentzen eta adierazten du, dagokion kasuan.	
Jarduerak motibagarriak, askotarikoak, zailtasunaren arabera mailakatuak eta ikasleendako irisgarriak dira.	
Materialak eta baliabide didaktikoak motibagarriak, ugariak eta egokiak dira. Elementu didaktiko berritzaileak edo metodologia aktiboak erabiltzen ditu.	
Argitasuna eta jariora, aurkezpenean. Ahoskera, intonazio eta abiadura egokiak. Erraztasunez hitz egiten du. Hiztegi zabala eta teknikoak darabil.	
UNITATE DIDAKTIKOARI BURUZKO EZTABAIDA. Adierazlea:	KALIFIKAZIOA
Galderei ongi erantzun die.	PUNTU 1